Temporada
Denboraldia
23-24



LÍRICA | LIRIKOA

# Sondra Radvanovsky

Martes 9 enero
Urtarrilak 9 asteartea
Hora | Ordu 19:30

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CULTURA | inaem INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA



Programa Programa

# PARTE I

Henry Purcell (1659 – 1695)
*Dido y Eneas: "When I am Laid in Earth"*

Georg Friedrich Händel (1685 – 1759)
*Julio César en Egipto: "Piangerò La Sorte Mia"*

Serguéi Rajmáninov (1873 – 1943)
*Ne Poi Krasavitsa (Sing not to me, beautiful maiden), Op. 4, Nº 4*
*Zdes' Khorosho (How fair this spot), Op. 21, Nº 7*
*I wait for thee, Op. 14, Nº 1*

Richard Strauss (1864 – 1949)
*Allerseelen, Op. 10, Nº 8*
*Befreit, Op. 39, Nº 4*
*Morgen, Op. 27, Nº 4*
*Heimliche Aufforderung, Op. 27, Nº 3*

# PARTE II

Franz Lizst (1811 – 1886)
*Tre sonnetti di Petrarca*
I. Pace non trovo
II. Benedetto sia 'l giorno
III. I vidi in terra

Jake Heggie (1961)
*If I Had Known*

Umberto Giordano (1867 – 1948)
*Andrea Chénier: "La mamma morta"*

**Sondra Radvanovsky**
Soprano

**Anthony Manoli**
Piano

**Duración aproximada:**
90' (con pausa).
**Iraupena:**
90' inguru (etenaldiarekin).



**Sondra Radvanovsky**
Soprano

La soprano Sondra Radvanovsky es una artista reconocida a nivel mundial. La profundidad y color exquisito de su voz se combinan con sus habilidades de interpretación dramática, desde los papeles titulares en *Rusalka* y *Lucrezia Borgia*, a Roxane en *Cyrano de Bergerac* y el papel titular en *Manon Lescaut*. Es ampliamente considerada una de las mejores sopranos de Verdi y se encuentra entre las intérpretes principales de bel canto.

Sondra Radvanovsky se formó en la Ópera Metropolitana en los 90 en el Programa de Desarrollo del Joven Artista de Lindemann. Después de varias actuaciones en papeles más pequeños, captó la atención de críticos como Antonia en *Les Contes d´Hoffmann*. Desde entonces, Sondra Radvanovsky ha tocado en todos los teatros de ópera importantes en el panorama internacional, incluyendo la Royal Opera House, Teatro allá Scala, el Met, Opernhaus Zürich y muchas más y ha aparecido en conciertos alrededor del mundo, cantando acompañada por orquestas líderes.

Sondra Radvanovsky ha comenzado la temporada 2023/2024 con *La forza del destino* de Verdi en la Royal Opera House de Londres, y *Turandot* en la Ópera de París y el Teatro di San Carlo de Nápoles, asumiendo una vez más su papel característico de Turandot. Su agenda para 2024 incluye la Deutsche Oper de Berlín, en el papel principal de *Aida*, y como Lisa en *Pique Dame*, de Tchaikovsky. En Toronto colaborará con la Canadian Opera Company, interpretando el personaje de Medea. En la Royal Opera House de Londres actuará en *Andrea Chénier*, bajo la batuta de Antonio Pappano.

Asimismo, durante esta temporada ofrece diversos recitales en escenarios de todo el mundo, entre ellos, el Centro de congresos de Andorra, el Festival de Aix-en-Provence y el Spivey Hall de Georgia.

Sondra Radvanovsky sopranoa mundu osoan da ospetsua. Artistaren ahotsaren sakontasuna eta kolore fina ederki uztartzen dira interpretazio dramatikorako duen trebeziarekin; horrela, paper nagusiak izan ditu Rusalka-n eta Lucrezia Borgia-n, edota Roxane gisa Cyrano de Bergerac-en, eta paper nagusia ere Manon Lescaute-n. Gehienen iritziz, Verdiren sopranorik onenetako bat da eta bel cantoaren interprete nagusienen artean dago.

Sondra Radvanovsky Opera Metropolitanoan prestatu zen 90eko hamarkadan, Lindemann Gazte Artista Garatzeko Programan, hain zuzen. Paper txikiagoetan hainbat interpretazio egin eta gero, kritikariak harengan hasi ziren begirada pausatzen; izan ere, besteak beste, Les Contes d´Hoffmann operan Antonia gisa egin zuen interpretazioa nabarmentzeaz gain, hurbiletik jarraitu beharreko sopranoa zela adierazi zuten. Orduz geroztik, Sondra Radvanovsky munduko opera-antzoki guztietan aritu da, barne direla Royal Opera House, Teatro allá Scala, Met, Opernhaus Zürich eta aunitzez ere gehiago; eta mundu zabaleko kontzertuetan agertu da kantuan, orkestra liderrek lagundurik.

Sondra Radvanovskyk Verdiren *La forza del destino* emanez hasi du 2023/2024 denboraldia Londresko Royal Operan, eta *Turandot* ere abestuz Parisko Operan eta Napoliko Teatro di San Carlo-n; beraz, beste behin ere Turandot paper bereizgarria bere gain harturik. 2024an, besteak beste, Berlingo Deutsche Operan arituko da Aida paper nagusian, eta Lisa gisa Txaikovskiren Pique Dame-n. Toronton, Canadian Opera Company-rekin arituko da lankidetzan Medea pertsonaia interpretatzeko. Bestalde, Londresko Royal Opera House-n Andrea Chénier operan arituko da, Antonio Pappanok zuzendurik.

Era berean, hainbat errezitaldi ari da ematen mundu zabaleko agertokietan; besteak beste, Andorrako Biltzar Zentroan, Aix-en-Provenceko Jaialdian eta Georgiako Spivey Hallen.



## Anthony Manoli
Piano

El pianista y profesor Anthony V. Manoli ha trabajado con algunas de las principales compañías de ópera de todo el mundo, entre ellas el Theâtre des Champs-Elysées, Gran Teatre del Liceu, Opera Lausanne y L' Opera Du Rhin.

Ha trabajado con directores como Leonard Slatkin, Seji Ozawa, Claudio Abbado, Sr. Andrew Davis, y Sr. Colin Davis. Dame Kiri Te Kanawa, Mirella Freni, Jose Carreras, Rockwell Blake y Barbara Fritolli son sólo algunos de los cantantes con los que ha colaborado.

Asimismo, ha impartido clases magistrales en Londres, Francia para la Fundación Royaumont, la Ópera de Denver, la Escuela de Música USC, el Festival de Música de Verano de Miami y en el Instituto SIVAM de la Ciudad de México. Recibió su formación musical en el Conservatorio de Música de Nueva Inglaterra y en la Juilliard School, donde también ha impartido clases.

Es productor asociado de grabaciones que aparecen en los sellos Tellarc y Naxos y se le puede escuchar en la banda sonora de la película de Miramax *El Talento del Sr. Ripley*.

Anthony V. Manoli piano-jole eta irakaslea mundu osoko opera-konpainia nagusietako batzuekin aritu da lanean. Haien artean daude Theâtre des Champs-Elysées, Gran Teatre del Liceu, Opera Lausanne eta L' Opera Du Rhin.

Bestalde, Leonard Slatkin, Seji Ozawa, Claudio Abbado, Sr. Andrew Davis eta Sr. Colin Davis zuzendariekin aritu da lanean, eta lankidetzan ere hamaika abeslarirekin; besteak beste, Dame Kiri Te Kanawa, Mirella Freni, Jose Carreras, Rockwell Blake eta Barbara Fritollirekin.

Halaber, saio magistralak eman ditu Londresen, Frantzian Royaumont Fundaziorako, Denverko Operarako, USC Musika Eskolarako, Miamiko Udako Musika Jaialdirako eta Mexiko hiriko SIVAM institutorako. Ingalaterra Berriko Musika Kontserbatorioan jaso zuen bere musika-prestakuntza, bai eta Juilliard School eskolan ere, eta bertan ere irakasle aritu da.

Tellarc eta Naxos zigiluetan agertzen diren grabazioen ekoizle elkartua izateaz gain, Miramax-en *Ripley jaunaren talentua* filmeko soinu-bandan ageri da.

Durante las últimas décadas la soprano norteamericana Sondra Radvanovsky, natural de Illinois (EE. UU.), se ha consolidado como una de las voces más destacadas de su generación. Desde su primera aparición en el escenario del Metropolitan de Nueva York, en 1995, su voz y su repertorio no han dejado de ampliarse, siendo hoy en día una intérprete de absoluta referencia para algunos de los roles más emblemáticos de todo el repertorio, tales como Aida, Norma o Turandot. No en vano, acaba de protagonizar este último título pucciniano en el Teatro San Carlo de Nápoles.

De timbre afilado y singular, sumamente reconocible, con un vibrato natural inconfundible, su instrumento es suntuoso y flexible a la vez, capaz al mismo tiempo de los sonidos más penetrantes y de los filados y pianissimi más estremecedores.

Para este recital en solitario, Sondra Radvanovsky nos propone un viaje muy personal y de tintes autobiográficos, comenzando por el repertorio barroco que interpretó en los comienzos de su trayectoria. Escucharemos así dos piezas icónicas, dos lamentos, ambos conmovedores: el de Dido, *When I am laid in Earth*, en la ópera *Dido and Aeneas* de Henry Purcell; y el de Cleopatra, *Piangerò la sorte mia* en el *Giulio Cesare* de Georg Friedrich Händel.

Para completar la primera parte del programa, la soprano norteamericana y su pianista, Anthony Manoli, recorrerán dos bloques de canciones, escogidas con exquisito gusto. Por un lado, tres romanzas de Sergei Rajmáninov, un autor al que la voz de Radvanovsky se pliega como un guante, con ese color oscuro pero brillante de su instrumento. Y después cuatro canciones de Richard Strauss, un auténtico maestro en estas lides, con páginas tan escalofriantes como su *Morgen*, que parece detener el tiempo.

La segunda mitad de la velada se abrirá con tres piezas exigentes, como todo lo que salió de la pluma de Franz Liszt. Escucharemos así sus *Tre sonnetti di Petrarca*. Se trata, obviamente, de tres canciones inspiradas en sendos sonetos del celebérrimo literato del siglo XIV. Liszt evoca aquí sus días en Italia y la fascinación e impronta que el país latino dejó en el autor austrohúngaro.

Sondra Radvanovsky ha querido también hacer un guiño a la creación contemporánea en Norteamérica, que ha florecido con gran pujanza en las últimas décadas. Uno de sus mejores representantes es el pianista y compositor Jake Heggie (Florida, 1961), autor de óperas tan aplaudidas como *Dead Man Walking* o *Moby-Dick*. *If I Had Known* es una pieza expresamente dedicada a Radvanovsky por el autor estadounidense. De hecho, es una canción de enorme calado autobiográfico, pues cuenta con versos de la propia soprano, en recuerdo a su madre, fallecida hace ahora dos años.

Y como broche a la velada, *La mamma morta* de Maddalena en *Andrea Chénier* de Umberto Giordano, una pieza inevitable en el centenario de la simpar Maria Callas, inmortalizada de hecho por su inclusión en la banda sonora de la película *Philadelphia*, de 1993, en una célebre escena con Tom Hanks.

Azken hamarkadetan, Sondra Radvanovsky soprano iparramerikarra (Illinois) ederki finkatu da bere belaunaldiko ahotsik nabarmenetakoen artean. New Yorkeko Metropolitaneko agertokian 1995ean lehen aldiz agertu zenetik, haren ahotsa eta errepertorioa etengabe ari dira zabaltzen eta, gaur egun, erabateko erreferentzia da errepertorio guztiko rolik adierazgarrienetako batzuetarako, hala nola Aida, Norma eta Turandot. Ez alferrik, Pucciniren azken lan hori protagonizatu berri baitu Napoliko San Carlo Antzokian.

Tinbre zorrotz eta berezia duela, guztiz ezagutzeko modukoa, halako vibrato natural nahastezinarekin, bikaina eta malgua da bere tresna, eta aldi berean da soinurik ozenenak eta filadorik eta pianissimirik hunkigarrienak emateko gauza.

Bakarkako errezitaldi honetarako, Sondra Radvanovskyk oso bidaia pertsonala proposatu digu, kutsu autobiografikoa dariola, bere ibilbidearen hastapenetan interpretatu zuen errepertorio barrokotik hasita. Horrela, bi pieza ikur entzunen ditugu, bi auhen, biak ere hunkigarriak: Didorena, *When I am laid in Earth*, Henry Purcellen *Dido and Aeneas* operan; eta Kleopatrarena, *Piangerò la sorte mia*, Händelen *Giulio Cesaren*.

Egitarauaren lehen zatia osatzeko, soprano iparramerikarrak eta haren pianistak, Anthony Manolik, bi kantu-bloke emanen dituzte, biak ere gustu bikainez aukeratuak. Batetik, Sergei Rajmáninoven hiru erromantza, Radvanovskyren ahotsa ederki egokitzen baitzaio egile horri, tresnak duen kolore ilun baina distiratsu horrekin. Eta gero, Richard Strauss zereginotako maisu apartaren lau kantu, denbora bera ere geldiarazi duela dirudien *Morgen* bezalako pasarte hain ikaragarriekin.

Gau-emanaldiko bigarren zatia hasteko, hiru pieza zorrotz emanen ditu, Franz Liszten idazlumatik ateratako gauza oro bezala. Horrela, haren *Tre sonnetti di Petrarca* entzunen ditugu. Hiru abesti dira, jakina, hirurak ere XIV. mendeko literato arras ospetsuaren bi sonetotan inspiratuak. Lan horietan, Lisztek Italiako egonaldia dakar gogora, bai eta herrialdeak sortzaile austrohungariarrean utzitako lilura eta lorratza ere.

Sondra Radvanovskyk, halaber, keinua egin nahi izan dio Ipar Amerikako sorkuntza garaikideari, indar handiz loratu baita azken hamarkadetan. Sorkuntza horretako ordezkaririk onenetako bat Jake Heggie piano-jole eta konpositorea da (Florida, 1961), *Dead Man Walking* edo *Moby-Dick* opera hain txalotuen egilea. *If I Had Known* pieza bereziki eskaini dio sortzaile estatubatuarrak Radvanovskyri. Izan ere, munta autobiografiko handi-handiko abestia da, sopranoaren beraren bertsoak ageri baitira, amaren oroitzapenetan onduak, orain dela bi urte zendua.

Eta gau-emanaldiari bukaera ezin hobea emateko, Maddalenaren *La mamma morta*, Giordanoren Andrea Chénier operakoa, hots, ezinbesteko printza Maria Callas paregabearen mendeurrenean, 1993ko *Philadelphia* filmaren soinu-bandan sartu izanak hilezkortua, Tom Hanksen eszena ospetsu hartan, hain zuzen ere.

**Alejandro Martínez**.
Director de *Platea Magazine* | *Platea Magazineko* zuzendaria

CICLO | ZIKLOA
**Fundación Baluarte Fundazioa**

LÍRICA | LIRIKOA

# Carmen

## G. Bizet

Producción de la Ópera de Monte-Carlo en coproducción con el Teatro Capitole de Toulouse y la Ópera de Marsella



© Fotografía | Argazkia: Alain Hanel

Viernes 2 febrero
Otsailak 2 ostirala
Hora 19:30

Domingo 4 febrero
Otsailak 4 igandea
Hora 18:30


Gobierno de España | Ministerio de Cultura | inaem

Fundación Baluarte Fundazioa | Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua | Fundación Cajanavarra | Mondragon | Fundación "la Caixa" | El Corte Inglés | Autopistas de Navarra

Fundación
Baluarte
Fundazioa

Plaza de la Constitución 31002
Pamplona-Iruña
T. 948 066 066
www.fundacionbaluarte.com
www.baluarte.com
info@fundacionbaluarte.com

facebook.com/FundacionBaluarteFundazioa
twitter/FundBaluarte
instagram.com/fundbaluarte
youtube.com/FundacionBaluarte
Fundación Baluarte

**Reciba las novedades
de Fundación Baluarte en su Whatsapp.
Envíe "alta" al +34 636 86 32 57**

FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
FUNDACIÓN CAJANAVARRA
Fundación "la Caixa"
AUTOPISTAS DE NAVARRA
El Corte Inglés
MONDRAGON HUMANITY AT WORK Finanzas Industria Distribución Conocimiento

Este programa se ha impreso utilizando papel reciclado
Eskuko programa hau paper birziklatuan inprimatu da

DL.NA 2323-2022